



Energiaren salmentak EAEko esportazioak lastatu ditu

Eustatek atzerriarekin egindako ondasunen merkataritzaren datuak argitaratu ditu 2019ko laugarren hiruhilekorako, eta, horrenbestez, 2019an egindako truke guztien lehen estimazioa eskuratu da. Estatistika horren arabera, EAEko ekonomiak 25.400 milioi euro inguruko balioa zuten produktuak esportatu zituen 2019an, hots, 2018an baino %0,4 gutxiago. Halaber, inportazioak, berriz, 20.121,5 milioi euro izan


ziren guztira, 2018an kontabilizatutako maila baino %0,8 gutxiago. Jaitsiera horiek gertatu diren arren, merkataritza salerosketek 2018an kontabilizatu ziren maximoetatik hurbil jarraitu zuten, eta kanpoarekiko saldo osoa superabitarioa izan zen, eta 5.275 milioi euroen ingurukoa, hau da, aurreko urtekoa baino %1,5 handiagoa.

ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Mila milioi euro


URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA

-%0,4




IMPORTAZIOAK GUZTIRA

Mila milioi euro




MERKATARITZA SALDOA GUZTIRA

Mila milioi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK


Mila milioi euro



Europako bazkide nagusiek (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Italia) dinamismo txikiagoa erakutsi zuten arren, Europar Batasuna berriz ere izan zen EAEko esportazioen helmuga nagusia. Izan ere, eremu horrek atzerrira egindako salmenta guztien %68,0 baino gehiago bereganatu zuen eta hazkundera %3,8 izan zen. Datu hori %5,2ra igotzen da produktu energetikoak alde batera utziz gero, horiek baitira guztizko esportazioen beherakadaren eragile nagusiak. Ekipamendu ondasunen salmenta izan zen aurrerapen horren sustatzaile nagusia; izan ere, saldutako ondasun guztien %47,3 bildu zuten eta %11,8 hazi ziren.


ENERGIAZ BESTELAKO ESPORTAZIOAK

Mila milioi euro




ESPORTAZIOAK ERRESUMA BATURA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK ALEMANIARA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK FRANTZIARA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.